

# Buletina

04

2023ko martxoa

Pedagogia Pentsioetan

JARDUNBIDE EGOKIAK

DEMOGRAFIA

Prestazioak

Gizarte Aurreikuspeneko Sistemak

Kontingentziak

Bazkideak

Erakundeak

Txostenak eta azterlanak

Inbertsioak


Rankingak

**Euskal Autonomia  
Erkidegoko  
gizarte-aurreikuspen  
osagarriaren  
behatokia**



EKONOMIA ETA OGASUN  
SAILA  
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA  
Y HACIENDA






## 2022an, gora egin zuen euskal BGAetako bazkideen kopuruak

2022ko behin-behineko datuek erakusten dutenez, euskal BGAetako bazkideen kopurua (bikoiztasunik gabe) 847.887ra iritsi zen, hau da, 6.714 pertsona gehiago 2021eko datuekin alderatuta. Hazkunde hori enplegu-sistemen dinamismoari zor zaio (guztizkoaren % 46,0), eta sistema indibidualak, aldiz, pisua galdu du (% 53,9; -1,1 puntu 2021eko datuekin alderatuta). Bestalde, aurreikuspen-planak dituzten BGAEei egindako ekarpenen bolumena 835 milioi eurokoa izan zen (842 milioi euro 2021ean) eta prestazioak 667 milioi eurora iritsi ziren (628 milioi euro 2021ean). Enpleguko BGAEetan kobratutako hileko batez besteko errenta 787 eurokoa izan zen.

[Informazio gehiago](#)



## BGA Eren Dekretua izapidetzen hasi da

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak kontsulta publikoa egin du Irekian, BGA Eren arloko hainbat Dekretu aldatzeko Dekretu-Proiektu bat egiteko asmoarekin. Helburua izan da herritarrei oro har parte hartzea irekitzea, bai eta etorkizuneko arau-erregulazio horrek eragin diezaiekeen erakunde publiko, antolakunde, entitate edo elkarte guztiei ere, proiektatzen den arauari buruz ekarpenak egiteko aukera izan dezaten. Martxoaren 24an amaitu zen kontsulta-prozesua, eta laster aztertuko dira lortutako emaitzak.



## Europako alderaketa: pentsio osagarriak kobratzeko modua

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Behatokiak berak egindako txostena. Bertan, argitalpenen azterketatik eta bibliografiatik abiatuta, Europako herrialde nagusietako sistema osagarrietan pentsioak kobratzeko aukera zehatzak azaltzen dira, arreta, batez ere, enplegu-sistemetan jarri. Gainera, hiru herrialderen azterketa xehatua egiten da (Erresuma Batua, Alemania eta Herbehereak). Emaitza nagusiek erakusten dute pentsio osagarriak kobratzeko hainbat formula daudela, eta kapital moduan kobratzeko aukera ematen duten estatu kideen prebalentzia ikusten da.

[Informazio gehiago](#)



## Espainiako Gobernuak pentsioen erreformaren bigarren fasea onartu du

Ministroen Kontseiluak pentsioen erreformaren bigarren faseko neurriak jasotzen dituen errege lege-dekretu bat onartu zuen martxoaren 16an. Errege lege-dekretu horren bidez, Gobernuak osatu egiten du Bruselari hitzemandako Berreskuratze Planaren 30. osagaia, pentsioen sistema publikoaren epe luzerako iraunkortasuna bermatzean zetzana. Oinarri arautzailea kalkulatzeko urte kopurua handitzea bame hartzen du, eta sistemaren diru-sarrerak indartzen dira (belaunaldien arteko ekitate-mekanismoa, gehieneko oinarrien gehikuntza), baita beste neurri batzuk ere pentsio baxuenak (KPIa baino igoera handiagoak) eta karrera irregularragoak dituzten langileenak (kotizazio-hutsuneak eta sistema duala zenbaketa-aldirako) hobetzen dituztenak.

[Informazio gehiago](#)



**LAS INSTITUCIONES DE INVERSIÓN COLECTIVA y LOS FONDOS DE PENSIONES**

## IKE eta Pentsio Funtzak: 2022ko balantzea eta 2023rako aurreikuspenak

Invercoren urteko txostenak (2023ko otsailean argitaratua) Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan (IKE) eta Pentsio Funtsetan egindako inbertsioaren ikuspegi orokorra ematen du, bai mundu mailan, bai Estatu mailan, 2022ko ekitaldian bere jardueraren zifra esanguratsuenekin. Era berean, Espainiako familien finantza-aurrezkiaren egituraren bilakaera aztertzen du, zehazten diren aktiboak identifikatuz eta Europako familiekin alderatuz. Era berean, arau-berrikuntzen laburpen bat eta 2023rako aurreikuspenen azterketa labur bat jasotzen ditu, pentsio-funtsen aktibo-bolumena pixka bat handituko dela aurreikusten dutenak.

[Informazio gehiago](#)



### Zazpi herrialde (ELGA) pentsio pribatuen aktiboen % 90 baino gehiago dira

Pension Markets in Focus 2022 (ELGA) txostenak erretirorako aurrezkiari buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen du, eta pentsioen sektoreak mundu osoan izan duen bilakaera berriena laburtzen du. Finantza-adierazle ugari biltzen ditu, pentsio-plan pribatuei eta kapitalizazioari buruzkoak, bai eta plan horiek estaltzen duten biztanleriaren proportzioari, afiliatuek ordaintzen dituzten pentsio-kotizazioen zenbatekoari eta erretiratzean jasotzen dituzten prestazioei buruzkoak ere. Txostenak artikulu berezi bat ere jasotzen du, Errusiak Ukraina inbaditu ondoren pentsio-hornitzaileen zorroetan gerrak izan zezakeen eraginari buruzkoa.


[Informazio gehiago](#)



### Europako pentsio-funtsak aurrera doaz inbertsio iraunkorreko politiken garapenean

PensionsEurope erakundeak 2022ko urteko txostena argitaratu du "Kapitalizazio-pentsioen joerak eta bilakaera" izenekoa. Txosten horretan, Europako enplegu-pentsioen panoramaren azken aldiko bilakaera aztertzen da, inflazioaren ibilbideak, erreferentziako interes-tasen igererak eta panorama geopolitikoaren aldaketak baldintzatutako egoera batean, horiek baldintzatu baitituzte Europako pentsio-funtsen inbertsio-estrategiak. Bestalde, inbertsio-politiken joera nagusiak jasotzen ditu, inbertsio iraunkorrera (ESG) bideratuta argi eta garbi, eta erreferentziako herrialdeekin, hala nola Herbehereekin, non pentsio-funts ia guztiak berriaz sartzen baitute klima-aldaketa beren inbertsio-politiketan.

[Informazio gehiago](#)



### EIOPAk informazio-eskakizunak gogortuko ditu tamaina handiko pentsio-funtsetan sortzen ari diren eta hortik datozen arriskuei buruz

EIOPAk gainbegirale nazionaletatik erretiro-pentsioei buruz jasotzen duen informazioa berrikusiko du, eta 2018tik indarrean dagoen sistema aldatuko du. 2025eko urtarrilaren 1ean indarrean jarriko den erabakiak sortzen ari diren arriskuei buruzko datu-hutsune handiak beteko ditu. Erabaki berriak enpleguko pentsio-funts txikietarako informazio-eskakizunak arintzen ditu, aktiboetan 50 milioi euro baino gutxiago dituzten IORP sistemak alde batera utzita. Gainera, kutzako deribatuen eta fluxuen hiruhilekoko informazioari buruzko datuen betekizun berriak nahitaezkoak izango dira 1.000 milioi eurotik gorako aktiboak dituzten enpleguko pentsio-funtsetarako soilik.

[Informazio gehiago](#)



### Irlandak aurrera egin du enplegu-planetara autoatxikitze sistemaren diseinuan

Press release

#### Historic progress on Automatic Enrolment - Minister Humphreys

From Department of Social Protection  
Published on 10 October 2022  
Last updated on 15 October 2022

- Government has approved General Scheme of Auto Enrolment Bill
- Heads of AE Bill now referred to Joint Oireachtas Committee for Pre-Legislative Scrutiny
- AE will include matching employer contributions and a State top-up
- for every €3 saved by a worker, a further €4 will be credited to their savings account
- AE train is on the tracks and leaving the station – Minister Humphreys

Irlandako Gobernuak autoafiliazioaren lege-proiektua onartu du, 2023aren amaieran ezarri nahi dena autoatxikipean 2024tik aurrera has daitezen. Langile eta enpresariaren hasierako ekarpenak soldata gordinaren % 1,5ekoak izango dira, eta hiru urtean behin autoeskalatu egingo da, hamargarren urtetik aurrera % 6ko gehieneko ekarpena lortu arte. Ekarpene horiek Gobernuak osatuko ditu, eta enplegatuek emandako 3 € bakoitzeko 1 € gehituko ditu. Pentsioen lanbide-erregimenean ez dauden langile guztiak, 23 eta 60 urte bitartekoak eta enplegu guztietan 20.000 euro baino gehiago irabazten dutenak, automatikoki afiliatuta geratuko dira; hala ere, ez kotizatzea erabaki ahal izango dute sei hilabetez nahitaez parte hartu ondoren, eta automatikoki alta emango zaie bi urteren buruan. Sistema kudeatzeko agintaritzatza bat sortzea aurreikusten da (Central Processing Authority (CPA)).

[Informazio gehiago](#)

### Buletin gehiago

>> [Informazio gehiago](#)

[Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Behatokia](#)